

# JUANTXO-TXIKIREN SARIA ETA ZIGORRA

*Juantxo-txikik okerrekoa egin dau?* Zirt eta zart, zipli-zapla, belarrionkoak eta jipoiak ugari. Ori ez, guraso. Zigortzea baiño eba dozu oriez itz egitea.

Bere okerra uste gabekoa izan ba'da, ez dau zigorrik merezi, iñondik be ez. Zuk maiko-zapi zuriaren gaiñean ardo-basoa edo tinta-boteillatxo utzi duzu aaztuta. Bitartean, ara non datorren Juantxo-txiki jolasgure biziarekin eta zapi ertzari tiratu egin dautso, baita zure baso-ardoa edo tinta-botilla mantel zuriaren gaiñean utzitu be.

Juantxo-txikik artu ditun belarrondoko eta jipoiak entzutekoak izan dira, berak errurik izan ez arren. Errua zurea izan da, mai gaiñean baso-ardoa itzi dozulako eta tinta-botilla itxi gabe. Zeure burua astindu bearko zenduke eta ez umerik ikutu. Zeurea izan da errua eta ez umearena.

✧

*Ostikoka ekin dio* Juantxo-txikik bere neskameari, mirabeari, eztabaida baten ondoren. Eta, or zagoz zu agoa-zabalik, zirkiñik egin barik, zuri ardurarik ez balitzu lez; neskaren anka-ezurak ez dautzue zuri miñik emoten... Barrerik egiten ez ba'dozu, gaitz-erdi.

Orain asi bear zenduke zuk zirt eta zart, geldirik egon barik. Orrelako okerrik ez da parkatu bear.

*Zer egin?* Bere gogo gaiztoz oker portatu ba'da, oker egin dauela erakutsi eta agertu. Ori da lenengo urratsa. Bere okerkeria ezagutzen ba'dau, irabazi dozu zure umearen biotza.

Zigorra merezi ba'dau, maitekor zigortu: ikusi dagiala maite-miñez zigortzen dozula. Zigorrik onena, zure maitasunaren agerpena ukatzea da. Umeak maite ba'zaitu, indar izugarria izango dau zigor onek. Maiteago eta zigorra miñago. Maite ez ba'zaitu, berriz...

\*

*Asarre zagozan unean* ez umerik zigortu, ez ziñake neurritsua izango-ta. Ez zigortu zeure asarrea baretzeko; justiziatik kanpo ibilliko zara eta zu nundik zabiltzan, umetxoa konturatu be bai. Injustiziarik ez dautzu parkatuko.

Gutxi zigortu eta gitxitan zigortu. Bear-bearrezkoa ez ba'da, ez zigortu. Zigorra Juantxo-txiki sendatzeko da; okerra sendatuko ez dauan zigorrik, ez sekula erabilli. Zalantzan ba'zaude, ez zigortu.

\* \* \*

*Saria ohea* da zigorra baiño. Ondo saiatzen danean, saritu Juantxo-txiki. Saritu bildurrik gabe. Sari aukerakoak billatuko dituzu. Umetxo maitaleentzat, bere gurasoen maite-agerpenak dira saririk onenak.

Zure seme-alabak sekulan saritu al dituzu ondo portatu diralakoz...?

ARRINDA'tar ANES